

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2020an Vitoria-Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko aparteko dirulaguntzen udal programaren bigarren deialdiaren 2. ildorako zuzkidura ekonomikoa handitzeko erabakia

2020ko abenduaren 23an egindako aparteko eta premiazko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an Vitoria-Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko aparteko dirulaguntzen udal programaren bigarren deialdiaren 2. ildorako zuzkidura ekonomikoa handitzeko erabaki-proposamena, zeinak hau baitio:

“Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 9ko erabakiaren bitartez onetsi ziren Vitoria-Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19. zenbakia).

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko maiatzaren 29ko erabakiz (2020ko ekainaren 10eko ALHAO, 65. zenbakia) onetsi zen Vitoria-Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko aparteko dirulaguntzen lehen deialdia, 750.000,00 euroko zuzkiduraz.

Deialdi hura ebatzi zelarik eta COVID-19ak sortutako krisi ekonomikoak hirian eragindako enpresa askok udal laguntzen aparteko deialdi hartaz baliatzerik izan ez zutelarik, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 24ko erabakiz 2020an Vitoria-Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko aparteko dirulaguntzen udal programaren bigarren deialdia onetsi zen (2020ko abuztuaren 14ko ALHAO, 91. zenbakia), COVID-19 dela eta Vitoria-Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko xedez, 200.000,00 euroko zuzkidura ekonomikoarekin eta bi jarduera-ildotan banatuta: lehena, txiki-zkako merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektorea (EJGaren 64, 65, 66, 67 eta 972 epigrafeak), 100.000,00 euroko zuzkiduraz; bigarrena, lehenengo puntuan sartzen ez diren sektoreei zuzendutakoa, 100.000,00 euroko zuzkiduraz. Hori guztia 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0823.4331.489.00 partidaren kontura (“COVID laguntzak”).

Eskabideak aurkezteko epea bukatu zelarik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2020ko abenduaren 18ko ebazpen baten bidez ebatzi ziren deialdiaren 1. jarduera-ildoan aurkeztutako eskabideak; orotara berrogeita hamasei dirulaguntza eman ziren, 37.671,99 euro guttura.

Deialdiaren berriazko oinarrien arteko 6.ak horren zuzkidura ekonomikoa handitzeko aukera ezartzen du, baldintza hauekin: “(...) Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio zuzkidura hori handitzerik izango da baldin eta “2020an Vitoria-Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko aparteko dirulaguntzen udal programaren deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak” izenburuarekin 2020ko ekainaren 10ean ALHAOn argitaratu zen laguntzan soberako krediturik badago, edo Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak kudeatzen duen partidaren batean soberako krediturik badago, interes publiko, ekonomiko eta sozialeko arrazoiak tarteko. Izan ere, dirulaguntza hauen aparteko izaera berorien arrazoi diren gertaeren zer-nolako berezi, bakar eta aurreikusezinei zor zaie”

2020ko abenduaren 18ko idazki baten bidez, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zerbitzu teknikoek proposatu zuten 2020an Vitoria-Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko aparteko dirulaguntzen udal programaren bigarren deialdi publikoaren 2. ildoaren zuzkidura ekonomikoa 39.833,01 euroan handitzea, aipatutako oinarrian ezarritakoaz baliatuz.

2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0823.4331.489.00 partidan ("COVID laguntzak") baldela soberako kreditu nahikorik egiaztatu da, aipatutako 6. oinarrian eskatutako terminoetan.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta horien baldintzak onesteko eskumena, haren egitekoa baita ekonomi kudeaketa eta, beraz, Dirulaguntzen Estrategi Plana bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluko 1.g) eta 2. ataletan eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Deialdiaren 6. oinarriak Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzten du berariaz soberako krediturik izanez gero deialdiaren zuzkidura ekonomikoa handitzea onestea.

Horrenbestez, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau egiten du:

Erabaki-proposamena

Lehena. 2020an Vitoria-Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko aparteko dirulaguntzen udal programaren bigarren deialdi publikoaren 2. ildoaren zuzkidura ekonomikoa hogeita hemeretzi mila zortziehun eta hogeita hamahiru euro eta zentimo bat (39.833,01 euro) handitzea.

Horrenbestez, ehun eta hogeita hemeretzi mila zortziehun eta hogeita hamahiru euro eta zentimo bat (139.833,01 euro) izango da aipatutako laguntza-programaren bigarren deialdiaren 2. ildo finantzatzera bideratutako zuzkidura ekonomikoa guztira.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta udalaren web orrian argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 28an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren
eta Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
LEIRE GÓMEZ ALCALÁ*